

Agustin Arrieta Urtizberea

Hitzezko eta pentsamenduzko tren

Tren-geltokian. Aldamenean, lurrean, oroipenez eta itxi gabeko elkarriketez eta kontuez betetako maleta.

Trenbidearen ezker aldeko ertzetik agertu da. Poliki-poliki dator trenna. Papereztatuta dator, hitzez eta esaldiz estalita dator goitik behera, ezker eskuin.

Lehenengo bagoian itsatsita datorrena irakurtzeko denbora izan dut.

Sokratesek ulertzen ez duena da, zapatak konpontzeko inor ez dela ona zapataria baino; eta Hiria konpontzeko denak onak izatea. Ulertzen ez duena da, zozketaz izendaturiko kapitain baten untzian inor ez litzatekeela itsasoratuko, baina Hiriko arduradun nagusiak zozketaz izendatzen direla. Hiria gobernatzeak, haatik, bere jakite propioa galdatzen du, beste edozein egitekok bezalaxe!

Maletan doaz *filosofiaren historia* eta *hiztegi filosofiko garatua* euskaraz idazteko proiektuak. Pauso batzuk bai, baina badago zer hobetu eta zer egin. Etorkizunerako.

Maletatik oroipen batzuk atera dira. Russellen ingurukoak izan dira lehenengoak (*Zergatik ez naiz kristaua?*, besteak beste). Ustekabean, Russellen liburu baten itzulpena egiteko aukera eskaini zenidan. Russellena *liburutxo argitsua* zela idatzi zenuen zehatz eta polit.

Bigarren bagoian irakurri dut: «Poetari ez diogu morala izatea eskatzen, edo hezkuntzaren edo erregimen politikoaren zerbitzuan egoitea».

Heideggerri buruzko mintegian, lauzpabost lagun. Helburua zen lerroz lerro irakurtzea alemaniar filosofoaren lan nagusia. Lerro baikoitza mundu bat zen, eztabaidak eta gogoetak, etenik gabe: zer esan egile baten bizitzaren eta pentsamenduaren arteko harremanaz? Heidegger eta Arendt. Hölderlin eta Homero.

Hirugarren bagoia bigarrenarekin ari da solasean, antza: «Azkenean Homero hiritik desterratzea, diosku Platonek berak, ez da inzibilizatu-ren baten zakarkeria edo basakeria, Logosaren exigentzia baizik: arrazoimenak (Logos) behartu gaitu».

Eta hurrengoan, Platonen ideiekin jarraituz: «Sistema honetan poeta-ri hezkuntzaren, moralaren, hiri eta politikaren, teologiaren zerbitzua eskatzen zaio. Eta zerbitzari ona ez bada, desterrura».

Maletako oroipenak: *Filosofiako Gida*. David Humeri buruz idatzi ze-nuen, eta solastatu ginen haren balizko ateismoaz (deista ote zen?) eta beste hainbat humear gairi buruz. Leibniz; posible eta ezinezkoaz. Trena geratuko den itxaropenaz, irakurri dut:

Argiaren jainkozkoa da, eguna argitzen duenean, istant bateko emozioak eternitatera irekitzen bazaitu, eta ez dakizu zer senti-mendu estrainio den hori, nostalgia pozezko batez bezala bete zai-tuena bat-batean. Ederraren jainkozkoa da, bide ondoko elorriko lore xuriek ederraren eder betikora bezala bazaitu hegaldarazten bat-batean udaberri goizean. Tximistargi bat da. Zoriontasun mo-mentu bat, denboratik at zaramatzana.

Ateak ireki zenizkigun (*Jakin Irakurgaiak...*), filosofiaz euskaraz idazte-ko aukerak emanez. Itxi gabe geratu zen *arima*, *balio* eta *bizitzaren zen-tzuari* buruzko elkarrizketa, «ez gaude hain aparte» esan zenidanetik.

Begi aurrean: «Gizakia da biologikoki abere bat Naturaren ordenatik hau-tsia bezala: galduta dagoena, bere habitat jakina ez daukana, instintoek esaten ez diotena zer egin, 'libre' dena, biologikoki espirituala hortaz».

Torturaz, *Barkamena*, *kondena*, *tortura*. *Estatua kontzientzien kontrolatzai-lea* zure lanaren harira: torturaren gaineko negazionismoaren aurka-ko antidoto biribila.

Azkeneko bagoian:

Ez da inongoa, inondik ez dator, ez doa inora; hots, nondik eta nora doan, berak galdera dauka, eta erantzuna inon ez dago in-guruan ipinita. Berak asmatu behar du bere nongotasuna bezala norakotasuna.

Itxi gabeko solasaldietarako aukera? Ez, trena ez da geratu. Ez da inoiz geratuko. Halere, dabilen harria nola, edonora irits daiteke pentsa-menduzko trena, bideak egokitzen badira.

Agur, Joxe! Eta eskerrik asko.